



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 51. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Abendua



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > 2020 Estrategia eskualdeetatik begiratuta: Gipuzkoaren ekarpenak

Eskualdeetako Lantaldeak Europako 2020 Estrategiaren inguruko jarraipenaren lehen txostena landu du, eta eskualde eta tokiko ikuspuntutik, estrategia modu eraginkorrean aplikatzeko orientazioen ekarpena egiten du.

Horretarako, EBko estatu kide guztietan borondatez lurralde-itunak onartzea proposatu du lantaldeak, hain zuzen ere, Europa 2020 praktikan jartzeko nazio, eskualde eta tokiko mailan kideen konpromisoak behar bezala zehazteko eta Erreformatarako Nazio Programetan islatzeko tresna gisa.

Lurralde-itunek lurraldearen dimentsio osoa eskaini beharko liokete Europako 2020 Estrategiari, helburuak eta asmoak hasieran zehaztutako baldintzetara egokituz; halaber, ekintzen norabide egokiagoa eta EBko, nazio-mailako, eskualde-mailako eta tokiko tresna politikoak nola finantziazio-bideak kudeatzeko orduan administrazioaren koordinazio eta sinplifikazio handiagoa. Halaber, Europa 2020ak nazio-mailan eta maila lokalean dituen zazpi ekimen esanguratsu abian jartzea erraztuko lukete.


Batasuna Berrikuntzaren alde ekimenaren inkestari Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako Departamentuak egindako ekarpenen harira, txostenean Gipuzkoari aipamena egiten zaio bi arlo zehaztutan:

- Ikerketarako eta enpresa txiki eta ertainentzako finantziazio-aukerak: ekimen asko tokiko eta eskualdeko erakundeen, merkataritza-ganberen, enpresa txiki eta ertainen elkarten eta unibertsitateen arteko lankidetzaren horizontalaren adibideak dira (adibidez, Liberec eskualdea, Apulia eskualdea eta Gipuzkoa probintzia). Berez, unibertsitatearen eta industriaren arteko lankidetzaren sustatzera, eta hazkunde adimenduna sustatzeko esparru bat eskaintzera bideratutako helburuak lortzen laguntzen dute.
- Hezkuntza-politikak: Eskualdeko berrikuntza-estrategiei lotuta, ezagutza-maila indartzeko eskualdeko eta tokiko ekimenak daude jada. Unibertsitateekin lanean jarduteko interes adierazgarri hau honako adierazpenari lotzen zaio: "enpresek parte-hartze handiagoa izan behar lukete ikasketen planak eta doktoretza-ikastaroak lantzeko orduan, gaitasunak industriaren beharretara hobeto egokitu daitezten" (esaterako, Malmö, Lodz, Gipuzkoa eta Preston). Sarritan hezkuntza-politikak aplikatzen dira eskualdearen I+G gaitasunez baliatzeko, lankidetzak abiatzeko eta goi-maila irakaskuntzako ikastetxeen eta enpresen arteko ezagutzak trukatzeko. Hala ere, bi sektore horien arteko komunikazio ezak arazo izaten jarraitzen du eskualde batzuetan.

Dokumentua Eskualdeetako Lantaldearen Bulegoak (CoR Bureau) eztabaidatu zuen joan den azaroaren 30ean eta 2010eko abenduaren 1ean aurkeztu zitzaion Batzordeko Presidente José Manuel Barrosori.

*Informazio gehiago.*

<http://portal.cor.europa.eu/europe2020/news/Pages/1stCoRMonitoringReport.aspx>



### > Gizon eta emakumeen presentzia Europar Batasunean eta Gipuzkoan erabakiak hartzerakoan

2010eko laugarren hiruilekoari dagokion Batzordearen oharraren arabera, Europar Batasuneko eskualdeko legebiltzarretako kideen % 70a gizonezkoak dira eta lehendakaritzen % 86an buru dira; emakumeen botere betearazleari dagokionean, aurten lehen aldiz % 10era iritsi da.

Europako solaskide sozialei dagokienean, hau da, erkidego-mailako elkarrizketa sozialean biztanleria okupatua eta enpresa-erakundeak ordezkatzan dituzten erakundeei dagokienean, atal sindikalean hiru gizonezkoatik emakume bat dago, eta enpresaren atalean sei gizonezkoatik emakume bat, aurreko urteko proportzioa bere horretan mantentzen delarik.

Gipuzkoan, berdintasun egoera Europar Batasuneko baina hobea da arlo publikoari dagokionean (Batzar Nagusietan % 47ko presentzia eta Aldundiko gobernuan % 36, hurrenez hurren, Batasunaren % 24 eta % 26aren aurrean), baina arlo pribatuan baxuagoa da (enpresen zuzendaritzan, hurrenez hurren, % 29 eta % 33koa da emakumezkoen presentzia).

*Informazio gehiago.*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=fr&catId=89&newsId=965&furtherNews=yes>

*Informazio gehiago (Gipuzkoako aurrekontuen genero txostena eta Gipuzkoa-EB benchmarking adierazleak)*

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/presupuestos/2011/Ppto2011/genero.pdf>



### > Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako plataforma europarra

2008an, Batasunean 80 milioi pertsona baino gehiago pobreziaren atalasetik behera bizi ziren, hau da, estatu kide handienak duen biztanle kopurua baino kopuru handiagoa, edo gure biztanleriaren % 16,5aren baliokidea. Pertsona horien artean, erdia baino gehiago emakumeak dira, eta 20 milioi, berriz, haurrak. Jakina, ekonomia-krisiaren ondorioz egoerak okerrera egin du.

Krisiak batez ere gure gizarteetako pertsona ahulenei eragin die. Gutxiago irabazten duten pertsonen egoera okertu egin da, eta orain pertsona horiek zorpetzeko eta kaudimen-gabezia izateko arrisku handiari aurre egin behar diote.

Europa 2020 Estrategiaren helburua, hurrengo hamarkadan pobrezia kaltetutako pertsonen kopurua (gutxienez 20 milioitan) eta gizarte-bazterketa murriztea da.

“Pobreziaren eta Gizarte-bazterketaren aurkako Plataforma Europarra: gizarte- eta lurralde-koehesiorako esparru europarra” izeneko jakinarazpenak fase berri bat irekitzen du gizarteratzearen eta gizarte-koehesioaren politika europarrei dagokienean.

Pobreziari bizitza-ziklo osoan zehar heltzea proposatzen du, eta biztanleriaren talde batzuk bereziki pobrezia-arriskuaren eraginpean daudela azpimarratzen du. Bereziki, haurrak, gazteak, guraso bakarreko familien gurasoak, menpekotasuna duten pertsonen osatutako familiak, etorkinak edo etorkinen ondorengoak, hainbat gutxiengo etniko (ijitoak, esaterako) eta minusbalotasuna duten pertsonak dira. Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak ere nabariak dira, eta emakumeek gizonek baino arrisku handiagoa izan ohi dute.

2010 Urte Europarraren bidez ikasitako ikasgai garrantzitsuetako bat honako hau izan da: herritarrek kontzientzia hartzea eta parte hartzea ezinbestekoa da gizarteratzeko eta gizarte-koehesiorako helburu europarrek Europako eta nazio-mailako jardueraren agendetan merezi duten lekua eta lehentasuna izan dezaten.

Bigarren ikasgaia da, Europar Batasuna aitzindari izan daitekeela gobernatzako eredu eta praktika berrietan, eta horiek nazio-mailako eta tokiko errealitateetan arrakastaz errotu daitezke. Eta garrantzitsua da, hori egiterakoan, Batasunak «geruza anitzeko gobernantza» hori eraginkortasunez sustatu ahal izango duela, gure aurrean ditugun historiako erronka handiei aurre egiteko funtsezkoak baitira.

*Informazio gehiago.*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0758:FIN:ES:PDF>



## KOMUNITATEKO POLITIKAK

### > Mugaz haraindiko oztopo fiskalak ezabatzea, Europar Batasuneko herritarren onerako

Batzordeak jakinarazpen bat argitaratu du, eta bertan, mugaz haraindiko egoeretan EBko herritarrek dituzten arazo fiskal larrienak azpimarratzen ditu; halaber, konponbideak bilatzeko planak iragartzen ditu. Pertsonak atzerriko herrialde batera mugitzen, bertan lan egiten edo inbertitzen dutenean, zergapetze bikoitz fiskala jasan dezakete, eta arazoak izan ditzakete zergen itzulketak eskatzeko orduan edo atzerriko arau fiskalen inguruko informazioa eskatzeko orduan.

Jakinarazpenaren xedea, era berean, estatu kideen zerga-sistemak bateragarriagoak izan daitezen eta modu horretan herritarrei mugaz haraindiko jardueri ekiteko asmoa ken ez diezaieten bestelako neurriak har daitezkeen zehaztea da, bai nazio-mailan eta baita EBri dagokionean ere.

Mugaz haraindiko arazo fiskalak nagusi dira EBko herritarrek Batzordeari igorritako kexa eta zalantzen artean. Kexa horietan honako alderdiak jasotzen dira: atzerriko arau fiskalen konplexutasunari lotutako zailtasunetatik hasi, eta atzeritarrei zuzendutako informazio argiaren gabezia eta estatu kide desberdinen sistemen bateraezintasunera arte. Mugako langileentzat zaila izaten da atzerriko zerga-agintarien aurrean desgrabazio, salbuespen eta kenketak lortzea, eta zergapetze bikoitza jasan behar izaten dute. Atzerriko herrialdeetan jabetzak erosten dituzten herritarrak sarritan kexu izan ohi dira salbuespen fiskalak aplikatzen ez dizkietelako edo jabetzaren gainean bertakoek baino zerga handiagoak ordaindu behar dituztelako. Bestalde, mugatik beste aldera autoak eraman edo erosteagatik matrikulazio-zerga bikoitza ordaindu behar da. Beste herrialde batzuetako inbertsioen errentak dituzten pertsonak arazo ugari izan ohi dituzte atzerriko herrialdeek aplikatutako atxikpenaren salbuespen-eskubideak erreklamatzeko orduan.

Era berean, atzerrian pentsio-funtsak dituzten pertsona askok arazoak izaten dituzte herrialde batetik bestera kenkariak eta transferentziak lortzeko; bestalde, beste estatu kide bateko herentziek ondorengotza-eskubide altuagoak edo zergapetze bikoitza izan ohi dute. Eta merkataritza elektronikoak oztopo fiskalen ondorio larriak jasaten ditu. Esaterako, BEZaren aplikazioaren arau konplexuak eta informazioa emateko orduan obligazioak. Beraz, EBren barruan merkaturatutako produktuetatik soilik % 7 erosi dira Interneten bidez beste estatu kide batetik.

Batzordeak agintari nazionalen eta interesdunen arteko elkarrizketa zabala bultzatu asmo du, neurri fiskalak sinplifikatzeko zer gehiago egin daitezkeen aztertu ahal izateko, herritarren eta barne-merkatuaren onerako. Idatzitako ideien artean honako hauek daude: EB osoan zergen erreklamazioa eta aitortpena egiteko inprimaki normalizatuak jartzea, langileek eta inbertitzaileek zergen inguruko informazio argia eta fidagarria eskuratu ahal izateko leihatila bakarrak sortzea, eta mugaz haraindiko langileen eta langile ibiltarien beharrak asetzeko nazio-mailako neurri fiskal bereziak ezartzea.

*Informazio gehiago.*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0769:FIN:ES:PDF>



### > Europako Batzordearen aukera berdintasunerako estrategia

Europako Batzordeak bere erakundearen barruan Aukera Berdintasunerako Estrategia 2014 abian jarri du, eta hiru printzipio nagusi ditu: langile-talde orekatua erakarri, garatu eta mantentzea; lan-esparru malguagoa sustatzea; eta Estrategian maila gorenean ere parte-hartzea bermatzea.

2014ari begira, zuzendaritza-postuen % 25 emakumeek bete beharko lituzkete (gaur egungo % 21arekin alderatuta), eta helburu hori gutxienez erretiratzen diren zuzendarien % 30a emakumez ordezkatuta lortuko litzateke. 2014 aurretik, erdi mailako agintarien % 30a emakumeak izan beharko dira (gaur egun, % 23 dira) eta erretiratzen diren erdi mailako agintari horien lanpostuen % 50a emakumeek bete beharko dituzte. Helburu horiek, lehen aldiz, Zuzendaritza Nagusi bakoitzaren mailan ezarriko dira.

Eta lan-molde malguak gehiago erabiliko dira, esaterako, ordutegi malgua, lana etxetik egitea eta lanaldi partzialeko lana. Hori lortzeko, zuzendari eta erdi mailako agintariak berdintasuneko politiken inguruko arreta, orientazio eta prestakuntza handiagoa jaso beharko dute.

Giza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia alor honetan Zuzendaritza Nagusi bakoitzak burututako jarduera aztertuko du hiru hiletik behin eta helburuak lortzen ez dituztenen jarraipena egingo du. Helburuak hobekien betetzen dituztenek hiru urterako portaera oneko txartel bat jasoko dute.

*Informazio gehiago.*

<http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=IP/10/1742&format=HTML&aged=0&language=ES&guiLanguage=en>



### > Administrazio elektronikoari buruzko ekintza-plana: 40 neurri Internet bidez zerbitzu publikoetara sartzea hobetzeko

Europako Batzardeak berrogei neurri aurkeztu ditu Internet bidez eskaintzen diren zerbitzu publikoetarako sarbidea hobetzeko. Administrazio elektronikoa sustatzeak lehiakortasun europarra bultzatzen lagun dezake, eta aurrekontu-murrizketak dauden une honetan, botere publikoei zerbitzu hobeak merkeago eskaintzeko aukera eman diezaieke.

Honen ondorioz, Europarako Agenda Digitalaren funtsezko atala osatu du, ondorengo helburuak dituen: 2015 urteari begira, administrazio elektronikoaren zerbitzuen erabilera EBko herritarren kasuan % 50 arte, eta enpresen kasuan % 80 arte areagotzea, eta oinarrizko hainbat zerbitzu publiko linean eskuragarri egon daitezen zaintzea. Modu horretan, enpresariak EBko edozein lekutik negozioak sortu eta zuzentzeko aukera izango dute, jatorrizko kokapenak garrantzirik izan gabe, eta herritarrak EB barruko edozein lekutan ikasi, lan egin, bizi eta erretiratu ahal izango dira.

Ekintza-planaren neurriak lau kategoriatan sailkatzen dira: Pertsona erabiltzaileen trebakuntza, Barne-merkatua, Administrazio publikoen eraginkortasuna eta Administrazio elektronikoa sustatzeko aurretzako baldintzak sortzea.

*Informazio gehiago.*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0743:FIN:ES:PDF>



### > Herritarren ekimen europarraren onespena

Euroganberak "herritarren ekimen europarra" onetsi du, hain zuzen ere, Lisboako Itunak sortutako tresna berri bat da eta horren bidez, EBko milioi bat herritarrek Europako Batzordeari legeria berri bat proposatzeko aukera izango dute. Ekimenaren sinatzaileak gutxienez zazpi estatu kideetakoak izan beharko dira.

Ekimena aurkeztu nahi duen pertsona batek "herritarren batzorde bat" osatu beharko du, eta gutxienez zazpi herrialdeetako zazpi pertsonak osatu beharko dute. Batzorde horrek izango du proposamena erregistratzeko ardura. Neurri honen helburua ekimenek oinarri egokiak eta dimentsio europarra izan dezaten bermatzea da.

Behin proposamena erregistratuta, onargarria den aztertuko du Batzordeak (Itunak eta Oinarrizko Eskubideen Karta errespetatzen dituen, EBren eskumenak gainditzen ez dituen eta iraingarria ez den aztertuko du). Batzordeak onartu ondoren, sustatzaileek urtebeteko epea izango dute milioi bat sinadura biltzeko. Sinadura horiek estatu kideen laurden batenak izan beharko dira.

Batzordeak aste gutxiren buruan araudia ontzat ematea espero da. Behin onetsita, estatu kideek urtebete izango dute arau horiek aplikatzeko. Beraz, herritarren ekimena 2012 urtearen hasieran jarriko da martxan.

*Informazio gehiago.*

<http://www.europarl.europa.eu/es/pressroom/content/20101215IPR10190/html/Iniciativa-ciudadana-un-mill%C3%B3n-de-firmas-para-proponer-legislaci%C3%B3n-europea>





### > Minusbaliotasunaren esparru europar berria

Europar Batasuneko Kontseiluak minusbaliotasunari buruzko esparru europar berriaren inguruko ebazpena landu du. Bertan, estatu kideen, minusbaliotasuna duten pertsonen, horiek ordezkatzeko erakundeen eta bestelako alde interesatuen laguntzarekin, minusbaliotasunaren estrategia europar berria lantzea proposatzen du, Europako Itunetan, Europa 2020 Estrategian eta NBEko Konbentzioan ezarritako baloreetan oinarrituta.

Halaber, irisgarritasuna sustatzea eta hobetzea planteatzen du, hiri irisgarrientzat urteroko sari europarra sortuz, eta minusbaliotasuna duten pertsonen eta euren familien eta horiek ordezkatzeko erakundeen lankidetzara eta parte-hartzerako mekanismoak hobetzea planteatzen du.

Eta sozialki Europa jasangarri eta kohesionatu bat lortzearen oinarrian, «ezer ez minusbaliotasuna duten pertsonentzat, minusbaliotasuna duten pertsonarik gabe» printzipioa egon beharko litzatekeela uste du. Halaber, hori soilik pertsona horiek gizarteratuz eta parte hartuz lor daitekeela gehitu du, eta horren haritik, minusbaliotasuna duten pertsonak gizartean guztiz integratu ahal izateko, bestelako alorren artean, enplegua, ondasun eta zerbitzuak, hezkuntza eta bizitza sozial eta publikoa eskuratzea aurretzeko baldintza dela nabarmentzen du.

*Informazio gehiago.*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2010:316:0001:0004:ES:PDF>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Europako mugaz haraindiko lankidetzarako plataforma berria

Budapesten abenduaren 9an eta 10ean egindako batzarrean, lau erakundetako ordezkariak mugaz haraindiko lankidetzara laguntzeko Europako plataforma berria sortzeko akordioa erdietsi zuten. Honako hauek dira erakundeak:

- Mission Opération Transfrontalière (Frantzia)
- Mugaz Haraindiko Ekimenen Europa Erdialdeko Zerbitzua (Hungaria)
- Grensmakelaar (Herbehereak)
- Galizia-Portugaleko iparraldea, eta Gaztela eta Leon-Portugaleko iparraldea (Espainia/Portugal)

*Informazio gehiago.*

[http://www.cesci-net.eu/tiny\\_mce/uploaded/Declaration.pdf](http://www.cesci-net.eu/tiny_mce/uploaded/Declaration.pdf)

### > Danubio eskualdeko garapen-estrategia


Europako Batzordeak Danubio eskualderako EBren Estrategia bat osatzeko proposamena aurkeztu du. Eskualdea 14 herrialdek osatzen dute (horietatik 8 Batasuneko kideak dira) eta 115 milioi biztanle ditu.

Ekimen honen helburua eskualdearen ahalmen ekonomiko izugarria garatzea eta ingurumen-baldintzak hobetzea da, epe luzean lankidetzara-esparru batetik abiatuta. Modu horretan, inguru horretarako erkidegoko kohesio-politikak emandako 100 milioi euroak modu bateratuan baliatuko lirateke.

Estrategiak lau oinarritan dituen ekintza-plana du: eskualdearen konektibitatea eta mugikortasuna hobetzea, ingurumenaren zaintza, ekonomiaren gortzea eta eskualdea indartzea.

*Informazio gehiago.*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/cooperation/danube/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperation/danube/index_en.htm)



### > Interreg IV C Programaren deialdi berria

INTERREG IVC eskualdeen arteko lankidetzaren programaren laugarren deialdia 2010eko abenduaren 1etik 2011ko apirilaren 1era bitartean egongo da zabalik.

Deialdia eskualdeko ekimen-proiektuei soilik zuzentzen zaie programaren bi lehentasunen arloan: berrikuntza-ezagutzaren ekonomia eta arriskuen prebentzioa-ingurumena eta horiei dagozkien esparru tematikoak.

Interreg IVC Europako Lurraldeen arteko Lankidetzarako Helburuaren barruan dagoen programa da, eta Europako eskualdeei elkarrekin lan egin dezaten laguntzea da helburua, ezagutzak eta esperientziak partekatuz.


Esperientziak trukatzeko tresna ohikoenak jarduera-sareak dira, hala nola, gaikako tailerrak, mintegiak, hitzaldiak, inkestak eta azterketa-bisitak. Proiektuaren bazkideek elkarrekin lan egin beharko dute jardunbide egokiak identifikatu eta transferitzeko. Balizko proiektuaren emaitzak honako hauek izan daitezke: kasuen azterketa-bildumak, politika aholkuak, ildo estrategikoak edo ekintza-planak. Halaber, INTERREG IVC programak inplementazio arina edo esperimentala ahalbidetzen du, baina soilik horiek esperientziaren jardueren trukea osatzen dutenean.

*Informazio gehiago.*

[http://i4c.eu/fourth\\_call.html](http://i4c.eu/fourth_call.html)

*Lankidetzaren foroa (Budapest, otsailak 3 eta 4)*

[http://i4c.eu/4th\\_EU\\_forum.evnt](http://i4c.eu/4th_EU_forum.evnt)



### > Sudoe programa: 28 proiektu onartu dira

Interreg IVC Sudoe (nazioz haraindiko lurralde-lankidetzaz) Programaren Programazio Batzordeak hautaketa-prozesuaren bigarren fasera pasatzeko baimena izan zuten bigarren deialdiko proiektuaren 28 hautagaitza onartu ditu; guztira, 25,3 milioi euroko EGEF kantitatea esleitu da.

28 proiektu horietatik, 22k hiru Estatuk osatutako taldea dute, eta gainerako 6 proiektuak bi aldeko proiektuak dira.

Europako Hego-ekialdeko Espazioa Frantziako, Espainiako, Portugaleko eta Gibraltarreko 30 eskualde eta hiri autonomok osatzen dute, eta 770.120 km<sup>2</sup>-ko azalera du. Biztanleei dagokienez, 61,3 milioi biztanle ditu, hau da, Batasunaren guztiko biztanleriaren % 12,4a.

*Informazio gehiago.*

<http://www.interreg-sudoe.eu/contenido-dinamico/libreria-ficheros/546622E4-C5FE-5E5E-CA57-41012FAFF589.pdf>



### e-LIBURUTEGIA

#### > Europako ingurumena: 2010eko egoera eta etorkizuna

Ingurumeneko Europako Agentziaren txostenak baieztatu duenez, Europar Batasunaren eta bere inguruko herrialdeen ingurumen-politikak hobekuntza nabarmenak ekarri dizkio ingurumenaren egoerari. Hala ere, oraindik ingurumeneko erronka garrantzitsuak betetzeko daude, eta modu egokian aurre egiten ez bazaie, Europarentzat ondorio latzak izan ditzakete.

Europako ingurumenaren etorkizuna desberdina da, baina ingurumenak ere etorkizuneko arrisku eta aldaketen aurrean erresilientziarako gaitasun handiagoa izateko aukerak daude. Aukera horien artean, aurrekaririk gabeko ingurumeneko informazio-teknologiak eta –bitartekoak, ezartzeko prest dauden bitartekoak zenbatzeko metodoak, eta arreta prebentziorako ezarritako printzipioekiko, jatorrizko kalteak zuzentzearekiko eta «kutsatzen duenak, ordaintzen du» printzipioarekiko konpromiso berritua daude.

Funtsezko mezuen artean, ingurumena gehiago errespetatuko duen ekonomia berde europar bateranzko eraldaketak epe luzera Europaren eta bere inguruko herrialdeen ingurumenaren jasangarritasuna bermatuko duela adierazten da. Testuinguru honetan, jarrera aldatzea oso garrantzitsua izango da. Erakunde arauemaileak, enpresak eta herritarrak, elkarrekin, kapital naturala eta bitarteko ekosistemikoak kudeatzeko orduan gehiago parte hartzeko aukera izango lukete, eta bitartekoak modu eraginkorrean erabiltzeko modu berriak eta berritzaileak sortuko lirarteke eta erreforma fiskal zorrotzak diseinatuko lirarteke.

*Informazio gehiago.*

<http://www.eea.europa.eu/soer/synthesis/translations/el-medio-ambiente-en-europa>

#### > Europako errenta eta bizi-baldintzak

Eurostaten txostenak Batasunaren eta bere herrialdeen diru-sarreraren egoera eta bizi-kalitatea aztertzen ditu. Hainbat kapitulu bereziren bidez, enplegua, diru-sarreraren desberdintasuna eta pobrezia, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, gabezia eta gizarte-bazterketa aztertzen ditu.

Europako herritarren bizi-baldintzei lotutako alderdi bakoitzaren estatistikak eta adierazleak aztertu eta aurkezten ditu, eta halaber, horiek azken urteotan izandako bilakaera aurkezten du.

*Informazio gehiago.*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-31-10-555/EN/KS-31-10-555-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-31-10-555/EN/KS-31-10-555-EN.PDF)



### ADIERAZLEAK

#### > Internet Gipuzkoako eta Europako etxeetan 2010

Europako etheen artean, % 70ak Interneterako sarbidea du; orain dela lau urte % 49 zen. Gipuzkoa zertxobait beherago dago; gaur egun, % 65, eta 2006an, % 45.

Holanda nabarmentzen da etheen % 91ak Internet duelarik, eta Luxenburgon, aldiz, % 90ak. Beste muturrean: Bulgarian % 33, Errumanian % 42 eta Grezian % 46. Seme-alabak dituzten etxeetan Interneten presentzia handiagoa da, % 84ra iritsiz.

*Informazio gehiago.*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_PUBLIC/4-14122010-BP/EN/4-14122010-BP-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/4-14122010-BP/EN/4-14122010-BP-EN.PDF)

#### > Europar Batasuneko portu-jarduera 2009

Portu-jarduera, salgaien merkataritzan neurtuta, % -12,4 jaitsi zen EB-27ko itsas portuetan, ekonomia-krisiaren eragina nabarmenduz. 2008an ere murriztu egin zen, nahiz eta xumeagoa izan (% -0,5), urte horretako azken hiruhilekoan izandako bilakaera txarraren ondorioz; garai hartan finantza-krisiak munduko ekonomian eragina izan zuen.

2009an kargatu eta deskargatutako salgai guztien bolumena 3,4 bilioi tona izan zen, sei urte lehenago, 2003an, izandako maila bera lortuz.

Europako hiru portu nagusiek, Rotterdam, Anberes eta Hanburgok (Batasuneko itsas merkataritzaren bosten bat jasotzen dutenak), % 10, % 17 eta % 20ko jaitsierak jasan zituzten, hurrenez hurren.

Pasaiako portu bidezko salgaien merkataritzak jaitsiera handiagoa izan zuen; 2009an, % 27 jaitsi zen. Hala ere, 2010eko lehen hamaika hilabeteetan merkataritza zertxobait suspertu da, % 2ko hazkundera izanik.

*Informazio gehiago.*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-10-065/EN/KS-SF-10-065-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-10-065/EN/KS-SF-10-065-EN.PDF)